

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

INGURUGIRO GAJETARAKO IKASTEGIA

Ikastetxeetarako joan-etorrietan mugikortasun aktibo eta autonomia sustatzeko jardueretarako dirulaguntza-deialdiaren ebazpena

2019ko urriaren 25ean onetsi zuen Vitoria-Gasteizko Udaleko Ingurugiro Gaietarako Ikastegiko zuzendaritza-kontseiluak ikastetxeetarako joan-etorrietan mugikortasun aktibo eta autonomia sustatzeko jardueretarako dirulaguntza-deialdia.

2019ko azaroaren 8an argitaratu ziren Vitoria-Gasteizko Udaleko Ingurugiro Gaietarako Ikastegiko zuzendaritza-kontseiluak ikastetxeetarako joan-etorrietan mugikortasun aktibo eta autonomia sustatzeko jardueretarako 2019ko urriaren 25ean onetsitako dirulaguntza-deialdiaren oinarriak eta laburpena —ALHAOren 129. zk.—.

Dirulaguntza-eskabideak aurkezteko ezarritako epea bukatu ondoren, eskabideak aztertu ziren, eta dirulaguntza eskuratu ahal izateko galdatutako dokumentazioa erkatu eta egiaztatu.

Ingurugiro Gaietarako Ikastegiko ebaluazio-organoak ebazpen-proposamen hau egin du, oinarrietan adierazitako hautaketa-irizpideei jarraiki:

Ikusirik Vitoria-Gasteizko Udaleko Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren estatutuak —2006ko apirilaren 5eko ALHAO, 40. zk—, zentroko lehendakariak hauxe

Ebatzi du

Ikastetxeetarako joan-etorrietan mugikortasun aktibo eta autonomia sustatzeko jardueretarako dirulaguntza-deialdiari dagozkion kopuruak ordain daitezela onestea, Vitoria-Gasteizko Udaleko Ingurugiro Gaietarako Ikastegiko aurrekontuko 2020/0110.1722.47106 partidaren kontura.

Ebazpen honek agortu egiten du administrazio-bidea, eta, beroren kontra, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazte-egunaren biharamunetik, edo, aukeran, berraztertze errekurtsoa, erabakia hartu duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazte-egunaren biharamunetik; horren berariazko nahiz ustezko ebazpenaren kontra, berriz, bi hilabeteko epean aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, errekurtsoa ezesten duen ebazpenaren berri jasotzen den egunaren biharamunetik, edo, ebazpena ustezkoa bada, sei hilabeteko epean, ustezko ebazpen hori gertatzen den egunaren biharamunetik.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko irailaren 25ean

Ingurugiro Gaietarako Ikastegiko lehendakaria
ANA OREGI BASTARRIKA

ERAKUNDE ESKATZAILEA	AURKEZTUTAKO PROIEKTUAREN KOSTUA, GUZTIRA	DIRULAGUNTZARI DAGOZKION KOSTUAK	DIRULAGUNTZARI EZ DAGOZKION KOSTUAK	EMANDAKO DIRULAGUNTZA (% 50)
Miguel Unamuno BHI	1.857,01 euro	1.857,01 euro	0,00 euro	928,51 euro
San Martin HLHI	151,25 euro	151,25 euro	0,00 euro	75,63 euro
Ampa Izartegia-CEIP Ángel Ganivet-Izarra- Sta. Lucia	1.001,91 euro	1.001,91 euro	0,00 euro	500,96 euro
Guztira				1.505,10 euro